


Baserria,

LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEGOARENTZAT GIDA

Natur Eskola Bizia





Aurkibidea



1. Aurkezpena	3
2. Hartzaileak	3
3. Metodologia	3
4. Programaren deskribapena	5
4.1. "Ataria"	5
4.2. Eskolan egiteko ekintzak	5
4.3. Baserrietako ekintzak	6
5. Sekuentziazioa eta tenporalizazioa	7
6. Oinarrizko kompetentziak, helburuak eta edukiak	7
6.1. Arloa	7
6.2. Gaia	7
6.3. Proposamenaren testuingurua	7
6.4. Jardueren identifikazioa	8
6.5. Landutako gaitasunak	8
6.6. Helburu didaktikoak	11
6.7. Edukiak baserriaz baserri	12
6.8. Edukiak arloka	15
7. Ebaluazioa	17

1. Aurkezpena

“Baserria, natur eskola bizia” ingurumen heziketako eta heziketa integrala, orekatua, parte hartzailea bultzatzen duen proiektu bat da, ekiteko zuzenduta dagoen heziketako proiektua alegia, diziplinartekoa, aurreiritziak zalantzak jarri nahi duen proiektua, pentsatzera bultzatu nahi duena, eta Hezkuntzako Lege Organiko berrian txertatuta dagoena.

Baliabide museistiko eta interpretatzaile aurreratuak eskaintzen ditu, ondo hornitutako tailerrak eta kalitatezko materialak. Ekintzak baserrietan edota hauetatik gertu garatzen dira eta baserritarrek diseinatuta eta dinamizatuta dira.

Material hau ere eskaintzen du irakasleei curriculumean ekintzak txertatzen laguntzeko eta baserrien bisitak osatzeko eskolan egiteko hainbat ariketa.

Gipuzkoako Diputazioak eta Goierri Garaiko udalek finantzatzen dute Goimen eta Lenbur Fundazioaren bidez.

2. Hartzaileak

Material hau Lehen Hezkuntzako irakasleei dago zuzenduta, eta eskolan bertan egiteko ariketa osagarriak bi adin tarteentzako da 6-9 urte eta 10-12 urte. Beraz, komenigarria da irakasleak egin aurretik errebisatzea taldearen arabera zein ariketak egin erabaki aurretik.

3. Metodologia: HLO legearen aplikazioa

HEZKUNTZARAKO LEGE ORGANIKOA, 2006/2, MAIATZAREN 3A.

Hezkuntzarako Lege Organikoak Europar Batasunetik zetozen eskakizun eta aholkuak betetzeko helburuarekin moldatu zuen estatuko hezkuntza sistema, baina ez zen arrazoi honegatik soilik izan, gizartean gero eta nabariagoa egiten ari den beste behar bati ere erantzunez baizik: etorkizunerako herritarrak berdintasunean eta baloreetan hezi eta bizitzaren aurrean trebeki erantzuteko prestatu.

Anbizio handiko helburu hau betetzeko, ‘gaitasuna’ kontzeptua hartu zen hitz-gako moduan. Hasera batean hezkuntza eta lan mundua lotzeko erabili zen, baina beste arlo guztietara zabaldu da. Horrela defini daiteke:

- HLO-ren esanetan: “Gaitasuna eskakizunei erantzuteko eta eginkizunak era egokian egiteko ahalmena izatean datza. Ekintza eraginkor bat betetzeko behar diren trebetasun praktikoa, jakintza, motibazioa, balore etikoak, jarrerak, emozioak eta beste herritar portaeren arteko konbinazioa da.”

- EB-ren esanetan: "Trebetasun, jakintza, ahalmen eta jarreraren konbinazioa, ikasteko nahia eta nola ikasi behar den ezagutzea. Oinarrizko gaitasunak jakintza, trebetasun eta jarrerez osatutako gai funtzio-anitza eta hedagarri bat dira, edozein gizabanakok garapen pertsonalerako, talde baten integrazioarako edota lan mundurako beharrezkoa izango duena. Derrigorrezko hezkuntza amaitzerako barneratuak egon beharko lukete, eta ondorengo ikasketetarako oinarritzat hartu beharko lirateke, bizitzan zeharreko ikasketa jarrai moduan."

Curriculumerako zortzi oinarrizko gaitasun proposatu ziren, baina hezkuntza era berri honetan hiru oinarrizko printzipio mantentzen dira beti: "adierazpena eta komunikazioa", "harremana eta elkarrekintza" eta "garapen pertsonala".

- Hizkuntza eta Komunikaziorako gaitasuna
- Matematikarako gaitasuna
- Zientzia, Teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
- Giza eta arte kulturarako gaitasuna
- Ikasten ikasteko gaitasuna
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

BASERRIA, NATUR ESKOLA BIZIA.

Hemen proposatzen den jarduera multzoa, hau da, hainbat baserrietarako bisita eta bertan egiten diren lanak zuzenean ezagutzea, eta beraietan aktiboki parte hartzea oinarrizko hezkuntza sisteman barneratzen diren edukiekin erlazionatua dago. Hau dela eta, txosten honetan eskolan lantzen diren arlo ezberdinen edukien eta HLO-ak definitzen dituen Oinarrizko Gaitasunen arteko lotura nagusiak aipatu nahi izan dira.

Batetik, "Baserrria, natur eskola bizia" proiektuak gertuen ukitzen dituen Arloa azpimarratu da, nahiz zeharka arlo guztiak ukitzen dituen; eta bestetik, aurreikusten den jarduera bakoitzak zein gaitasun lantzen duen.

Zerrendatzen diren helburu didaktikoei dagokienez, zuzenean proiektu honi dagozkionak dira, parte-hartzaileen hezkuntza maila eta beharrei egokituta daude, curriculumean aipatzen diren gaiei aplikatuak. Honela, eduki, kontzeptu, jarrera, balore eta trebetasun berriak eskaintzeaz gain, eskoletako gai eta arloekin bateragarri eta osagarri ere badira.

Baserritarrek ekintzak diseinatzeko ingurumen hezitzaileen laguntza izan dutenez, irakasleak erraz identifikatuko ditu Ingurumen Heziketako eta Heziketa Jasangarriko ezaugarriak, hala nola:

- Nekazal guneekin harreman zuzena
- Garapen jasangarriaren aldeko mezuak
- Joko eta tailerren erabilera
- Diziplinarteko ekintzak
- Ikerketa

- Pentsaera konplexuaren aldeko apustua
- Aurrepentsatutako eskemen birplanteamenduak
- Baserri munduan dauden elementuen eta prozesuen interpretazioa

Orokorrean baserriak eta beraien inguruak ezagutu eta tailerrak egiten jarduten dute ikasleak, tartean bideoak ikusi, museoak bisitatu eta jokoak egiten dutelarik

4. Programaren deskribapena

Programak 8 bisitaldi eta bisitaldi bakoitzaren aurretik eta atzetik egiteko ariketak eskaintzen ditu. Honetaz aparte "ataria" deituriko baserriari buruzko informazio txosten orokor bat ere eskaintzen da.

4.1. ATARIA

"Ataria" baserriari buruzko informazio orokorra eskaintzen duen txostena ez da ikasleei banan bana emateko txostena, baizik eta bi erataria erabiltzeko pentsatuz egindakoa:

- Bisitaldia egin aurretik edo ondoren irakasleak interesatzen zaizkion atalak irakur diezaike ikasleei eta atal horietan ikasleei zuzendutako galderei erantzuten jardun.
- Ikasleak taldetan banatu eta talde bakoitzari txostenaren atal bat banatu. Ikasleek emandako informazioa irakurri eta ondoren planteatzen diren galderei erantzunez edo ariketak eginez jardun. Gero gelako kide guztiak elkartu eta talde bakoitzak, dagokion baserriaren alderdia beste alderdiarekin eskatuko zaie.

Atal hau baserriaren mundura hurbiltzeko erabil daiteke eta ekintza osagarri moduan ere lgartubeiti baserria eta museoa bisitatu daitezke.

4.2. ESKOLAN EGITEKO EKINTZAK

Ariketa hauek, lehen esan bezala, adinaren arabera banatzen dira: batzuk 6-10 urteko ikasleentzat eta besteak 10-12, eta fitxen formatua daukate (pdf), irakasleak ikasle bakoitzarentzat bat inprimatu ahal izateko.

Bisita egin aurretik proposatzen diren ariketak ikasleak motibatuzko pentsatuz diseinatu dira eta bisita egin ondorengoak berriz, egindakoa gogoratzeko eta menperatzeko eta ondorioak ateratzeko planteatzen dira.

Bisitaldia egiteko ez da beharrezkoa ariketa hauek egitea, baina esperientziak erakusten digu programa osoa egiten dituzten ikasleek askoz gehiago ikasi eta disfrutatu egiten dutela, beraien jarreraren ere eragin positiboa izanik.

Ariketak oso denbora gutxian egiteko pentsatuta daude, eta gainetik beste ekintzak planteatu nahi badira, eskola batzuk ohizkoak dituzten bezalakoak (aldizkaria, idazlanak, eta abar) hauek lan horietan laguntza izango dira.

Web orrian ikasleen fitxekin batera irakasleari laguntzeko fitxen erantzunak daude.

4.3. BASERRIETAKO EKINTZAK

Baserri desberdinek eskaintzen dituzten ekintzak hurrengoak dira:

- Erlezaintza ekologikoa

Aikur baserrian (Zumarragan) baserriaren inguruko ibilaldi bat eginez erlauntzen eboluzioa ikus daiteke, erlearen interpretazio zentroan erlezaintzaren historia, erlearen biologia eta ekologia, ezti eta beste produktuen ekoizpena, eta erlazioatutako hainbat gai lantzen dira, eta gainera erlauntza bat bizirik ikus daiteke, non erleen kasta desberdinak, arrautzak, beldarrak, dantzak, polena, ezti eta propoliak, ... ikusteko aukera ere dagoen. Gero ikasle bakoitzak kandela bat egiten du eta ezti dastatu beste ariketekin batera.

Etxera ikasle bakoitzak bere ezti potea eta egindako kandela eramaten du.

- Abarkagintza

Astiazaran baserrian (Gabiria) edo herrian bertan, Santxo Abarka pertsonaia ezagutu, garai batean larrua nola lantzen zen ikasi eta ikasleek abarkak egingo dituzte, erabiltzen diren hainbat tresna ezagutuz. Ikasleek egindako abarkak eskolara eramaten dituzte oroimen gisa eta bakoitzak bere eskuturrekoa jarrita eramaten du.

- Artzaintza eta gaztagintza

Gazta egitera joateko bi baserri daude aukeran: Bastarrika (Gabirian) eta Erraizabal (Legazpin). Bitan ardiak ikusi daitezke eta Idiazabal gazta egin. Baztarrikan, baserriaren funtzioa zein den ikus daiteke horretarako multimedia (entzun-ikustekoa) bat dutelarik eta Erraizabalen berriz Artzaintzaren sorrera eta eboluzioa Euskal Herrian azaltzen duen bideoa eta artzaintzaren museoa dauzkate baliabide gisa. Gero eta bitan, egindako gazta prentsan utzi eta handik bi-hiru hilabetera eskolara iritsiko zaie.

- Ogigintza

Haritzizabal baserrian (Ezkio-Itsason) garia eta beste labore edo zerealen ezaugarriak ezagututa, ogi integrala eta gaileta ekologikoak egiteko aukera dago. Ikasleek mantala jarrita oreka landu eta labean erretzeko sartuko dute beraiek asmatutako forma bitxiak dituzten ogiak eta bitartean baserriko ganbaran dagoen sorpresa izango dute zain. Egun horretatik aurrera gosari osasuntsuak egingo dituzte eta egun berean ogitarteko berezia beraiek egindako ogiarekin eta gailetekin.

- Frutagintza eta marmelada

Haritzizabalen ere aukera dago frutagintza ekologikoaren ezaugarriak ezagutzeko, inguruko fruta arbolak ikusiz. Bitartean landu egiten da eguzki energiaren aprobetxamendua, bertan dauden eguzki plaketan. Eta sukaldean berriz, bildutako frutarekin marmelada egiten da ikasle bakoitzak pote bana eramango duelarik gosari osasuntsua egin dezan etxera bueltatzen denean.

- Barazkiak eta lore zaintza

Urruti baserrian (Zumarragan) bertako negutegian garaian garaiko lore eta barazkiak hazteko teknikak eta ezaugarrien berri izango dute. Landareak ugaltzeko dituzten modu desberdinak ikusi, behar dituzten zaintzak eta berezitasunak ezagutu eta baita negutegian egiten diren lanak ere. Landare desberdinak lurrian landatzeko praktika egingo dute eta bakoitzak etxera eramango ditu loreontzitan jarritako landare eder batzuk.

- Elikagai osasuntsuak azokan

D'elikatuz zentroan azokaren eboluzioa ezagutuko dute ikasleek multimedia baten bidez eta gero bi taldeetan banatuta alde batetik elikadura osasuntsua landuko dute zentroan bertan jolastuz eta bestetik azokara joango dira erosketak egitera. Bukaeran erositako produktu batzuk dastatu egingo dituzte besteak eskolara eramanez.

5. Sekuentziazioa eta temporalizazioa

Baserrietako ekintzak 3, 4 eta 6 ordukoak badira ere baserritarrek eskolen beharretara egokitzen saiatzen dira. Hala ere baserritarrek modu lasaian ibiltzeko web orriari aholatzen dituzte ekintza bakoitzaren iraupenera egokitzea aproposena da, urteetako esperientzia baitute honetan.

Badira eskola batzuk, ikasle orok "Baserría, natur eskola bizia" programa osoa betetzea helburu dutenak. Ekintzak egokitu egiten dira edozein mailarekin egin ahal izateko, baina edukiengatik eta tailerrak egiteko behar den trebeziari begiraturaz, proposamen ireki bat eskaintzen dugu. Ibilaldia Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan osatzeko dago egina:

Ogigintza (LH1-LH6)
Barazkiak eta lorezaintza (LH1-LH6)
Artzaintza eta gaztagintza (LH2-DBH2)
Erlezaintza ekologikoa (LH3-DBH3)
Abarkagintza (LH3-DBH3)
Elikagai osasuntsuak azokan (LH4-DBH4)
Frutagintza eta marmelada (LH4-DBH4)

Eskolarako prestatutako materialak denbora gutxian bete daitezke, ordu bete bisitaldiaren aurretik eta beste ordu bete atzetik kalkulatu da.

6. Oinarrizko kompetentziak, helburuak eta edukiak

6.1. ARLOA

Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.

6.2. GAIA

Baserría, natur eskola bizia.

6.3. PROPOSAMENAREN TESTUINGURUA

Baserríak oso garrantzitsuak izan dira gure kultura, bizi kalitatea eta ingurumena kontuan hartzen badugu, eta gaur, baserritarrak eta bertan egiten diren lanak gutxitu diren arren, garrantzi handia izaten jarraitzen dute eta seguru aski garrantzi hau gehitzen joango da etorkizunean.

Hau horrela izanda, proiektu honen bidez baserri bakar batzuk bisitatuko ditugu, eta bertan, baserriarren eskutik ezagutuko ditugu egiten dituzten lanak, besteak beste: abarkak egin, erlauntzak zaindu eta produktuak prestatu, barazkiak eta frutak ekoiztu, ogia eta galletak prestatu, gazta egiten ikasi eta janari osasuntsuak eta bertakoak erosi azokara joanez.

Bisita hauek egin aurretik, gure eskolan gai bakoitza landuko dugu, bertaratzen garenean eduki batzuk izateko. Bertan hainbat jarduera egingo ditugu, eskulanak, jakiak... Azkenik jasotako edukien ebaluaketa eta hausnarketa bat proposatzen da, gaur egungo gizartean baserrien paperaren inguruan.

6.4. JARDUEREN IDENTIFIKAZIOA

- Erraizabal baserria Artzaintza-gaztagintza Legazpi..... A
- Baztarrika baserria Artzaintza-gaztagintza Gabiria..... B
- Haritzizabal baserria Frutagintza Ezkio-Itsaso C
- Urruti baserria Lorezaintza Zumarraga..... D
- Aikur Erategia Erlezaintza Urretxu E
- Haritzizabal baserria Ogigintza Ezkio-Itsaso F
- Astiazaran baserria Abarkagintza Gabiria..... G
- Azoka eta D'elikatuz zentroa Elikadura eta azokak Ordizia H

6.5. LANDUTAKO GAITASUNAK

1- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Gaitasun honen funtsa hizkuntzaren erabilera da, bai ahozkoa zein idatzizkoa, bai errealitatea adierazi, interpretatu eta hura ulertzeko egindakoa, bai jakintza eraikitzeko eta komunikatzeko egindakoa, bai eta pentsamoldea, emozioak eta jarrerak antolatu eta norberak erregulatzeko egindakoa.

Mezuak ulertzea eta komunikatzen jakitea jakintza praktikoak dira, baina hizkuntzari eta haren erabilera araei buruzko ezagutza erreflexiboa behar dute haiek oinarrian, eta horrek berariaz eskatzen du hizkuntza behaketarako eta azterketarako objektutzat balioesten eta erabiltzen jakitea.

LH-ko 1. eta 2. zikloak	A, B, C, D, E, F, G, H.
LH-ko 3. zikloa	A, B, C, D, E, F, G, H

2- Matematikarako gaitasuna

Gaitasun hau zenbakiak, horien oinarriko eragiketak, matematika-sinboloak eta matematikako adierazpen eta arazoitze moduak erabiltzeko eta lotzeko trebetasuna da, bai informazioa sortzeko eta interpretatzeko, bai errealitateko alderdi kuantitatibo eta espazialei buruzko jakintza handitzeko, bai eguneroko bizitzako eta laneko arazoak konpontzeko.

Oinarrizko matematika-elementuak ezagutzea eta horiek eguneroko bizitzako egoera erreal edo simulatuetan erabiltzea dakar, bai eta arrazoitze-prozesuak abiaraztea ere, arazoak konpontzeko edo informazioa lortzeko.

LH-ko 1. eta 2. zikloak	A, B, C, D, E, F, G, H.
LH-ko 3. zikloa	A, B, C, D, E, F, G, H

3- Zientzia-, teknologia- eta osasun- kulturarako gaitasuna

Gaitasun honek aukera ematen du gertakariak ulertzeko, gertakarien ondorioen aurreikuspenak egiteko, eta norberaren eta gainerako pertsonen eta izaki bizidunen baldintzak hobetzeko eta kontserbatzeko jarduerak egiteko.

Bizitzaren eta giza jardueren euskarri den espazio fisikoa behar bezala hautematea, bai eskala handitan, bai gertuko ingurunean.

Zer-nolako eragina duen ingurunean pertsonen presentziak, asentamenduak eta jarduerak, pertsonak zer aldaketa egiten dituzten ingurunean, eta aldaketa horien ondorioz zer paisaia sortzen diren.

LH-ko 1. eta 2. zikloak	A, B, C, D, E, F, G, H
LH-ko 3. zikloa	A, B, C, D, E, F, G, H

4- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

Informazioa bilatzean, lortzean, prozesatzean, komunikatzean eta informazio hori jakitate bilakatzean datza gaitasun hau.

informazioa eskuratzekoa, hura tratatu eta informazio-euskarrietara transmititzekoa, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak informatzeko, ikasteko eta komunikatzeko erabiltzekoa.

Oinarrizko hizkuntza espezifikoak menderatu behar dira eta hizkuntza horiek deskodifikatzeko eta transferitzeko jarraibideen berri izan.

LH-ko 1. eta 2. zikloak	-
LH-ko 3. zikloa	E, D

5- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Gaitasun honek zer gizarte-errealitate bizi duen ulertzeko, lankidetzaz-jarduerak egiteko, bizikidetzaz lantzeko, eta herritartasun demokratikoa gizarte plural batean erabiltzeko aukera emango dio ikasleari, eta halaber, gizartea hobetzen laguntzeko konpromisoa hartzeko aukera emango dio.

Munduan zeharreko kulturek gizateriaren bilakaerari eta aurrerabideari egin dioten ekarpena balioetsi behar du ikasleak, eta gizarteko partaide dela sentitu behar du.

Ulertu behar du jarrera pertsonal guztiak ez direla etikoak, baldin eta jarrera horiek ez badituzte printzipio eta balio unibertsalak ere barnean hartzen.

LH-ko 1. eta 2. zikloak	A, B, C, D, E, F, G, H.
LH-ko 3. zikloa	A, B, C, D, E, F, G, H

6- Giza eta arte kulturarako gaitasuna

Giza eta arte-kulturarako gaitasunak berekin dakar kultura- eta arte-adierazpenak ezagutzeko, ulertzeko, balioesteko eta ikuspegi kritikoaz baloratzeko gaitasuna. Ikasleak gozatzeko eta bere burua aberasteko erabili behar ditu adierazpen horiek, eta herrien ondare-elementutzat jo.

Artea balioesteko, haien adierazpenak norberarengana ekartzeko trebetasunak eta jarrerak izan behar dira, eta, horrez gain, pentsatzeko, hautemateko, komunikatzeko eta sentitzeko trebetasunak eta sen estetikoa izan behar da, haiek ulertu eta balioesteko eta haiekin gozatzeko eta hunkituta sentitzeko.

Ekimena, irudimena eta sormena baliatu behar ditu ikasleak, arte-kodeen bidez adierazteko.

LH-ko 1. eta 2. zikloak	C, E, F, G.
LH-ko 3. zikloa	C, E, F, G.

7- Ikasten ikasteko gaitasuna

Norberaren gaitasunen (intelektualak, emozionalak eta fisikoak) kontzientzia hartzean eta gaitasun horiek garatzeko prozesuaz eta estrategiez jabetzean datza gaitasunak.

Norbera gauzak egiteko gai dela sentitzea, eta horrek bultzatu egiten ditu motibazioa, nork bere buruan duen konfiantza eta ikasteko grina.

LH-ko 1. eta 2. zikloak	A, B, C, D, E, F, G, H.
LH-ko 3. zikloa	A, B, C, D, E, F, G, H.

8- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Gaitasun honek ardura; irmotasuna; nor bere burua ezagutzea eta auto-estimua izatea; sormena; autokritika; kontrol emozionala; hautatzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko ahalmena izatea; eta berehala asebetetzeko premia atzeratzeko, akatsetatik ikasteko eta arriskuak hartzeko ahalmena izatea eskatzen du.

Aurretiazko planteamenduak berregin eta ideia berriak sortu behar dira, eta, finean, konponbideak aurkitu eta aplikatu.

LH-ko 1. eta 2. zikloak	A, B, C, D, E, F, G, H.
LH-ko 3. zikloa	A, B, C, D, E, F, G, H.

6.6. HELBURU DIDAKTIKOAK

- Baserrira, baserritarrengana eta bertako jardueretara gerturatu, ezagutzuz balora ahal izateko.
- Eskulangintzaren balioaz ohartu:
gaztagintza, erlezaintza, artisautza, lorezaintza ogigintza, frutagintza, ...
- Ohitura eta usadioei errespetua sortarazi.
- Elikadura osasuntsu eta iraunkor batera zuzendu, garaian garaiko, bertako eta lurra zainduz sortutako produktuak erosteko kontzientzia sortu.
- Natur baliabideez aprobetxatu daitekeela ikusi, inguruarekiko errespetuz jokatzuz.
- Euskal kulturarekin lotura estua duten ezaugarriak ezagutu.
- Paisaiaren ezaugarriak eta bilakaera ezagutu.
- Euskal Herriko historiaren atal garrantzitsuak ezagutu.
- Beste energia batzuen hautua gerturatu (eguzki energia).
- Baserriaren eta baserritarren lanaren eboluzioaz ohartarazi, ez da iraganeko bizi modu bat baizik etorkizunerako mantendu nahi den bizi modu bat.
- Gertu daukaguna preziatzen ikasi.

6.7. EDUKIAK JARDUERAKA

Ondorengo taula zerrendan baserri bakoitzera bisita egitean landuko genituzkeen edukiak agertzen dira. Batetik, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloan batzen diren ikasleei zuzendutakoak daude, eta betetik, 3. Ziklora aplikatuagoak diren eduki multzoak.

(A-B)		<ul style="list-style-type: none"> • Paisaiaren aldaketa eta eboluzioa ulertu. • Artzaintzaren garrantziaz jabetu, bere bizimodua ezagutzuz. • Ardi, esne eta gaztaren erlazioak ezagutu. • Energia fotovoltaiakoaren inguruko lehenengo ideiak jaso. • Eguneroko matematika: neurriak, zenbakiak, eragiketak ... • Kontzeptuak: mamia, artzaina, kaikua, jatorrizko izendapena, latxa, zakurra, esnarria, gatzagia, gazura, ukuilua ...
ARTZAINZAZ ETA GAZTAGINTZAZ	LH 1.-2.	
Erraizabal (Legazpi) Baztarrika (Gabiria)	LH 3.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizakiak ingurunean duen eragina ulertu, eta ondorioz izan den paisaiaren aldaketa eta eboluzioa ezagutu. Aberastasuna aintzat hartu. • Landa inguruneke lanen inguruan sakondu, oinarrizko sektore ekonomikoa dela ohartaraziz. Artzaintzaren garrantziaz jabetu, bere bizimodua ezagutu. • Ardi, esne eta gaztaren erlazioak ezagutu. Gaztagintza prozesua. • Energia fotovoltaiakoaren inguruko lehenengo ideiak jaso. • Eguneroko matematika: neurriak, zenbakiak, eragiketak ... • Kontzeptuak: irabiatu, hartzitu, irakin, jatorrizko izendapena, gatzura ...

(C)		<ul style="list-style-type: none"> • Fruta arbolen ezaugarriak eta euren historia ezagutu. • Izaki bizidunen oinarrizko prozesu batzuk ezagutu: polinizazioa, fotosintesia ... • Energia fotovoltaiakoaren eta termikoaren inguruko lehenengo ideiak jaso. • Marmelada egiten ikasi. • Kontzeptuak: polinizazioa, fotosintesia, sagarrondo, aranondo, elorria ...
FRUTAGINTZAZ ETA MARMELADAZ	LH 1.-2.	
Haritzizabal (Ezkio-Itsaso)	LH 3.	<ul style="list-style-type: none"> • Fruta arbolen eta beste landare espezie batzuen ezaugarriak eta urtaro zikloak ezagutu. • Izaki bizidunen eta inguruko faktoreen arteko harremanez ohartu, bakar batzuetan sakonduz: polinizazioa, fotosintesia ... • Energia iturri alternatiboak ezagutu, eta energia fotovoltaiakoaren eta termikoaren inguruko lehenengo ideiak jaso. • Kontzeptuak: zuntza, E-B-C bitaminak, antioxidatzaileak, azido folikoa, karbohidratoak, lorea-eguzkia, eguzkia-fruitua.

(D) BARAZKIAK ETA LOREZAINZA	LH 1.-2.	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritzaren sorrera eta historiaz jakin. • Urtaroak eta bere eraginak. • Lurra nola prestatu jakin. • Landareak eta barazkiak nola zaindu ikasi. • Kontzeptuak: Hazia, simaurra, negutegia, ureztatu, inausi, lorea, hostoa, hazia, sustraiak, zurtoina...
	LH 3.	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritzaren sorrera eta historiaz jakin. • Urtaroek landare eta loreengan duten garrantziaz ohartu. Garaian garaiko produktuen garrantzia eta onurak ulertu. • Landareak eta barazkiak nola zaindu ikasi. Landaketa prozesuak. • Kontzeptuak: konposta, estoloiak erraboila, aldaxka, tipula, ongarria, turba, zupatzailea ...
(E) ERLEZAINZA EKOLOGIKOA	LH 1.-2.	<ul style="list-style-type: none"> • Eztia lortzeko prozesua ezagutu: erlezaintza, historia, lotutako sinesmenak, ezaugarri sendagarriak ... • Elikagaiak sendagarri izan daitezkeela ohartu. • Animalia eta loreen arteko erlazioa ezagutu. • Kontzeptuak: erle-polizia, -sukaldaria, -lorenzaina, -igeltseroa, -nekazaria, propolia, erlauntza, eztia ...
	LH 3.	<ul style="list-style-type: none"> • Eztia lortzeko prozesua ezagutu: erlezaintza, historia, lotutako sinesmenak, ezaugarri sendagarriak ... • Elikagaiak sendagarri izan daitezkeela ohartu, eta osasunerako natur baliabideak ezagutu. • Animalia ezberdinen polinizazio joerak eta biodibertsitatea erlazionatu. Izaki bizidunen arteko harremanak bizi katean duten garrantzia baliotu. • Matematika: gelatxoen bolumena, erleen bidai kopuruak ... • Kontzeptuak: erregina, erlamandoa, langileak, erlatokia, abaraska, eztia, nektarra, propolia, argizaria, eztena
(F) OGIINTZA	LH 1.-2.	<ul style="list-style-type: none"> • Zerealen eta ogigintzaren historia ezagutu. • Nekazaritza ekologikora gerturatu. • Kontzeptuak: okina, irina, garia, artoa, errota, legamiak, biodibertsitatea ...
	LH 3.	<ul style="list-style-type: none"> • Zerealen eta ogiaren historia ezagutu. Historian zehar oinarrizko elikadurak izan duen garrantzia. • Hartzidura eta nozio kimikoak jaso. • Nekazaritza ekologikora gerturatu. Lurzoruan, inguruan, uretan kutsadura saihesteko arrazoiak ulertu. • Kontzeptuak: zerealak, glutena, termometroa, labea, errota, galbahea, garia, artoa, legamia, ura, hartzidura, irina, gatza ...
Hariztizabal (Ezkio-Itsaso)		

(G) ABARKAGINTZA	LH 1.-2.	<ul style="list-style-type: none"> • Larrugintzaren oinarrizko pausuak ezagutu. • Oinetakoen historia eta aldaketaz ohartu. • Abarkak, eskumuturrekoak etab. egiten ikasi. • Kontzeptuak: labana, artilea, larrua, kautxua, mailua, abarkaria, aiztoa, behorra, argizaria, kalamua ...
	LH 3.	<ul style="list-style-type: none"> • Larrugintzaren oinarrizko pausuak ezagutu. Tresneria, materialak eta teknikak. • Oinetakoen bilakaera eta historia jaso. • Ohiko ditugun oinetakoen jatorria ikertu eta ekoizpen mota batzuk ingurumenean duten eraginez ohartu. • Baliabideak era egokien erabilpena barneratu. • Kontzeptuak: abarkak, eskalapoiak, sandaliak, alpargatak, zankoak, getak, abarkagintza, larrua, behia, abarkaria, zapatila, koipea, tindua, goma, zola, garraio-kostua ...

(H) ELIKAGAI OSASUNTSUAK AZOKAN	LH 1.-2.	<ul style="list-style-type: none"> • Azoka baten funtzioaz ohartu, baserritarrak eta produktuak ezagutu eta garaian garaikoaren garrantziaz jabetu. • Elikadura egokia eta gorputza osasuntsu mantentzeko hastapenak ezagutu. • Diruaren erabilera. • Kontzeptuak: gantzak, proteinak, karbohidratoak, ekoizpen ekologikoa, garaian garaikoa, bertako produktuak ...
	LH 3.	<ul style="list-style-type: none"> • Azoka baten funtzioaz ohartu, baserritarrak eta produktuak ezagutu eta garaian garaikoaren garrantziaz jabetu. • Elikadura osasuntsu batean garrantzitsuak diren adierazleak bereizi, eta kaltegarri diren jokabideak identifikatu. • Diruaren erabilera eta erosketetarako autonomia. • Kontzeptuak: garaian garaikoa, bertako produktuak, jatorri izendapenak, prezioa, balorea ...

6.8. EDUKIAK ARLOKA

“Baserriak, natur eskola bizia” proiektuak lantzen duen ikasketa arloa Natura, gizarte eta kultura ingurunea da. Ondorenean zuzenean lantzen diren gaiak identifikatu ditugu, batetik Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. Zikloetarako eta bestetik 3. Ziklorako curriculumean oinarrituz.

Hala ere, beste arloak ere lantzen dira proiektu honetan, zeharka bada ere, eta garrantzitsuenak azpimarratu dira. Gai multzo hau Lehen Hezkuntzako ziklo guztietarako (1., 2. eta 3.) da aplikagarria.

Natura, gizarte eta kultura ingurunea	
LH 1. – 2.	<ul style="list-style-type: none"> - Inguruko zenbait natura elementu eta giza elementu behatu eta antzeman. Paisaiaren aldaketa eta eboluzioa ulertu, iragana, oraina eta geroa denborak landu. - Landa sektoreari lotutako inguru bat ezagutu, bertako animaliak zuzenean behatu, eta baserria eta baserriarekin lotutako jardueren historia ezagutu. - Landare eta animalien ezaugarri fisikoak eta prozesu nagusiez entzun eta inguruarekin duten lotura aztertu: polinizazioa, fotosintesia, elikadura kateak... - Osasunerako onuragarri eta kaltegarriak diren elikagaiak, ohiturak eta jarduerak identifikatu. Elikadura orekatua ezagutu. - Gure inguruko kultura ezagutu, baloratu eta aintzat hartu. Ohiturak eta usadioak. - Baliabide naturalak ezagutu. Erabiltzen ditugun material ezberdinak ezagutu, hondakinak sortzen ditugula ohartu. - Bizimodu osasuntsu eta jasangarria barneratu, bertako eta garaian garaiko produktuen balioa ezagutu.
LH 3.	<ul style="list-style-type: none"> - Giza eraldaketak ikusi: nekazaritza, abeltzaintza, artzaintza edota urbanizazioaren eraginak atzeman. Paisaiaren aldaketa eta eboluzioa ulertu, bere aniztasuna eta aberastasuna aintzat hartu. - Baserria eta baserriarekin lotutako jardueren historia ezagutu. Euskal Herriko iraganeko eta egungo ohiturak ezagutu eta baloratu. - Bizitzaren aniztasunak ezagutu. Gizaki animalia eta landare biodibertsitatea baloratu. Izaki bizidun ororen biziarekin lotutako prozesuak ezagutu: elikadura, ekoizten dituzten produktuak (eztia, esnea, fruituak ...) ... - Lurzoruaren osagaiak eta ezaugarriak ezagutu. Kutsadurarik gabemantentzearen garrantzia helarazi. - Baliabide naturalak ezagutu. Erabiltzen ditugun material ezberdinak ezagutu, hondakinak sortzen ditugula ohartu. - Tresneriaren ezagutza, teknologia berri eta zaharren oinarritzko erabilera eduki. - Bizimodu osasuntsu eta jasangarria barneratu, bertako eta garaian garaiko produktuen balioa ezagutu.

Lantzen diren zeharkako arloak, Lehen Hezkuntzarako orokorrak.

Arte Hezkuntza
<ul style="list-style-type: none"> -Imajinazioa eta sorkuntza pertsonala garatu. -Larrugintzaren lehen pausuak ezagutu: estetika, modak, sormena ... -Lorezaintzara gerturatu: esanahiak, sortzen dituen sentimenduak, estetika

Gorputz Hezkuntza
<ul style="list-style-type: none"> -Elikadura osasuntsua izan: kalitatezko produktuak, elikagai sendagarriak ...

Hizkuntzak
<ul style="list-style-type: none"> -Oinarrizko testuak irakurri, idatzi eta ulertzea. -Kontzeptu berriak ezagutu: fotosintesia; hartzidura; artzaintza-, erlauntza,-frutagintza-, lorezaintza-, ogigintza- edota larrugintzarekin lotutako prozesu, elementu eta tresneria; biodibertsitatea; energia iturriak ...

Matematika
<ul style="list-style-type: none"> -Denbora (iragana, gaur egun, etorkizuna) -Pisua, bolumena, neurriak, kopuruak, oinarrizko eragiketak. -Salerosketak.

Herritartasuna
<ul style="list-style-type: none"> -Lankidetzak -Ingurumenarekiko errespetua, aniztasunaren babesa. -Gizabidezko ohiturak: osasuna, kontsumo eta jasangarritasunarekiko ideiak egunerokora eraman.

7. EBALUAKETA

Ebaluaketaren bidez ekintzaren eraginkortasuna ezagutzeko informazioa lortzen da. Hemen ebaluatu nahi diren puntuak:

Heziketa-ikasketa prozesuari dagokionez:

Edukiak: Kontzeptuak, konpetentziak eta jarrerak era orekatuan lantzen diren. Kontzeptuen arteko elkar erlazioak ezartzen ote diren, parte-hartzerik badagoen, prozedura berriak ezagutu eta aplikatzen ote diren,...

Helburuak: didaktikoak eta kontzientziario eta partaidetzari dagozkienak ondo lortzen diren.

Metodologia: aktiboa, partaidetzaren bultzatzailea, ludikoa eta zientifikoa izan den. Diziplinartekoa den. Adin eta garapen psiko-ebolutiboari egokitzen den. Diskurtsoetan batik bat, interpretazio teknikak erabiltzen diren, ...

Baliabideak: ugariak diren eta premia indibidualetara egokitzen diren. Ematen den diskurtsoekin bat egiten duten, eta ondo kudeatzen diren.

Baserritar-hezitzaileen lanari dagokionez:

Harremana pertsonalizatua, maitasunezkoa eta konfiantzazkoa izan den. Hartzaileen interesetik eta alde zuzeneko ideietatik abiatu den ekintza. Erritmo indibidualak eta proposamen kolektiboak errespetatu diren. Aktibitateen planifikazioa egokia izan den.

Ikasleen eboluzioari dagokionez:

Ezagutzak barneratu dituen. Norberekiko konfiantza, besteekiko irekitasuna eta kooperazioa garatu dituen. Ingurune natural eta sozialarekiko kontzientzia hartu duen. Partaidetza zuzena izan duen. Pentsamendu kritikoa eta aktibitate ikertzailea burutzeko jarrera azaldu duen. Ardura, osasuna eta garbitasun arauak erabili dituen. Ingurunearekiko balioak garatu dituen.

Ebaluaketa instrumentuak desberdinak izan daitezke: galdeketak, jokoak, muralen erakusketak, argazki lehiaketak, dossier edo informeak, antzezlanak,... eskolan egiteko ariketen artean, bisitaldiaren ondorengokoak balio dezakete aipatutako hainbat arlo ebaluatzeko. Baina horretaz aparte ere, eskertu egingo genuke prestatutako bi fitxa erabiltzea: bat irakasleentzako eta bestea ikasleentzako; biak material didaktikoen atalean daude. Ikasleen fitxa ez dute denek bete behar, talde bakoitzeko 5 bat ikasle betetzearekin nahiko izango genuke.